

## BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

### 3539

*EBAZPENA, 2025eko uztailaren 14koa, Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun lurralde-ordezkararena. Honen bidez, aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzekeo administrazio-baimena ematen da Oyón-Oion udalerrian 1MWko «Val» Instalazio Fotovoltaikoa proiektuari dagokion instalaziorako.*

Espediente zk.: 01GEY 202400009.

#### AURREKARIAK

2024ko otsailaren 8an, Bailén Energía, SL enpresak eskatu zituen aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzekeo administrazio-baimena Oyón-Oion udalerrian 1MWko «Val» Instalazio Fotovoltaikoa proiektuari dagokion instalaziorako.

Proiektuaren xede den instalazioak sarbide- eta konexio-baimena du, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU enpresa banatzaileak emana, 2023ko urriaren 18an.

2024ko abenduaren 16an eta 18an, hurrenez hurren, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean proiektu hau eta sustatzaile beraren «Muga» izeneko beste proiektu bat jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen. Era berean, erakunde hauei dagozkien separatak bidali zitzaizkien: Oyón-Oiongo Udala, AESA - Aireko Segurtasunaren Estatu Agentzia, Oiongo Ureztatzaileen Erkidegoa, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen eta Nekazaritzaren Zuzendaritzak eta URA-Uraren Euskal Agentzia. Aipatutako erakundeetatik Ureztatzaileen Erkidegoaren, URAREN eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren txostenak jaso ziren.

Nekazaritza Zuzendaritzak Nekazaritza eta Basogintzaren LAParekin bateragarritzat jotzen du proiektua, eta adierazten du ureztatze-sarearen gaineko eraginak sustatzaileak jakinarazi behar dizkiola Oiongo Ureztatzaileen Erkidegoari, baso - mendi mehatz gisa katalogatutako lurzoruen erabilera aldatzeko Baso Organoaren baimena behar dela eta, erregistratutako landa-bideei eragin diezaieketenez, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuari dagokion txosten teknikoa eskatu beharko zaiola gauzatu aurretik. Sustatzaileak adostasuna adierazi zuen.

URAK proiektua baimentzeko baldintzak aurkeztu zituen, eta sustatzaileak onartu egin zituen.

Oiongo Ureztatzaileen Erkidegoak honako hau alegatu zuen: (1) «... behar bezala aztertutako konponbidea sartzea lehendik dagoen onura publikoko ureztatze-sarearen eta ebakuazio elektriko sare berriaren arteko gurutzatze- edo afekzio-puntu bakoitzerako»; (2) «unean unekoa eta behar bezala informatua izatea zuinketa eta obrak egiteko unean interesgarriak izan daitezkeen xehetasun guztiei buruz, eta kontuan hartutako abisuei eta gomendioei buruz, kalterik gerta ez dadin; horiek, gertatuz gero, linea elektrikoaren sustatzaileen/titularren erantzukizuna izango lirarteke.» eta (3) «Nahitaezko baldintza hau ezar dadila: etorkizunean Ureztatzaileen Erkidegoak bere ureztatze-sarean esku hartu beharko balu gurutzatze-puntuetan matxurak edo mantentze-lanak daudelako, sare elektrikoak deskonektatzeko eta ondoren konektatzeko lanak, beharrezkoak izanez gero, sare elektrikoaren titularren kontura izango lirarteke, eta ezin izango lukete lan horiek egiteari edo atzeratzeari uko egin, ureztatze-sarea lehenagokoa eta onura publikokoa delako».

Sustatzaileak erantzun zuen, eta Ureztatzaileen Erkidegoak egindako gogoetak ezesteko eskatu zuen eskatutako baldintzak betetzen baitzituen. Sustatzailearen erantzuna Ureztatzaileen Erkidegoari helarazi zitzaion, eta adierazi zuen bere alegazioak ez zirela kontuan hartu, eta baldintzak berretsi zituen. Sustatzaileak horri erantzun zion erabateko adostasuna adieraziz.

#### ZUZENBIDE OINARRIAK:

1.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritza espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna da, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Espediente hau izapidetzerakoan, Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak ezarritako aginduak bete dira.

Aipatutako lege-manuak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun lurralde-ordezkaririk.

#### EBAZTEN DU:

Bailén Energía, SLri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematea Oyón-Oion udalerrian 1MWko «Val» izeneko instalazio fotovoltaikoa proiektuari dagokion instalaziorako.

1MW-ko potentzia nominaleko planta fotovoltaikoa, Oyón-Oionen kokatua, Oyón-Oiongo 3. poligonoaren 547-A, 547-B, 547-C, 547-D eta 547-E partzelatan, honako ezaugarriekin:

- 0,700 kWp-ko 1.680 modulu fotovoltaiko.
- 30.°C-tan dauden 250 kVA-ko 4 inbertsore.
- 1000 kVAko transformadore 1.
- Lurpeko 1.829 m-ko ebakuazio-linea ebaketa zentroraino. Ebaketa zentroa sartu gabe.
- Ebakuazioa hurrengo linean egingo da: 1 – 13,2 Kv-ko Oyón-Oion – Casablanca, Oyón-Oiongo STR (13,2 kV).

Ebazpen hau ematen da baldintza orokor hauek kontuan hartuz:

1.– Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin, eta sustatzaileak onartutako baldintza teknikoak kontuan hartuta. Bereziki, Oiongo Ureztatzaileen Erkidegoari helarazi beharko zaio, obrak egin aurretik, ureztatze-sareari eragin eta gurutzaketetarako azkenean hartutako irtenbide teknikoa, onar dezan.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

3.– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren, eta arauko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko dio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzari, ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman dezan. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzai-leak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Deskarbonizazio zuzendariaren aurrean, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 14a.

Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkarria,  
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.